



Esp. kodea: 2015SAPL0004

AKORDIOEN LABURPENA

Udal Plenoak, 2015eko apirilaren 16a egindako bilkuran, erabaki hauek hartu dituela informatzen dut:

1.- AURREKO BILKURAKO AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA.

Udal Plenoak, aho batez, Korporazioa osatzen duten 21 zinegotzietatik bilkuran 19 daudela, **2015eko otsailaren 23an egindako bilkuraren akta onartu du.**

2.- GIPUZKOAKO GARRAIOAREN LURRALDE AGINTARITZAREN ESKU UZTEA UDAL GARRAIO ARLOKO LAU ASPEKTUREN KUDEAKETA, ETA HORRETARAKO LANKIDETZA HITZARMENA SINATZEA (2012ZZER0007)

Udal Plenoak, aho batez, Korporazioa osatzen duten 21 zinegotzietatik bilkuran 19 daudela, **erabaki du Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzaren esku uztea udal garraio arloko lau aspekturen kudeaketa, eta horretarako Lankidetza Hitzarmena sinatzea erabaki du.**

Aipatu lau atalak hauexek dira: errekareru berezia, irisgarritasun diagnostikoa, irisgarritasuneko gailuen banaketa eta zigortzeko prozeduren lanak gauzatzeko. Azkenik, Udal Plenoak 315,15 €ko ekarpena egitea onartu du Agintaritzaren alde, kudeaketa gastu kontzeptuan.

3.- UDALBATZARRARI JAKINARAZTEA 2014KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN ONARPENA (2015RBAR0007)

Udal Plenoak honen berri jakin du, Tokiko Gobernu Batzarrak 2015eko martxoaren 30eko bilkuran Udalaren 2014ko Aurrekontuaren likidazioa onartu zuela.

4.- UDALBATZARRARI JAKINARAZTEA ITURBIDE EGOITZAREN 2014KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN ONARPENA.(2015RBAR0008).

Udal Plenoak honen berri jakin du, Tokiko Gobernu Batzarrak 2015eko martxoaren 30eko bilkuran Iturbide Egoitzaren 2014ko Aurrekontuaren likidazioa onartu zuela.



Esp. kodea: 2015SAPL0004

5.- UDALBATZARRARI JAKINARAZTEA AUKEAREN 2014KO AURREKONTUAREN LIKIAZIOAREN ONARPENA(2015RBAR0009)

Udal Plenoak honen berri jakin du, Tokiko Gobernu Batzarrak 2015eko martxoaren 30eko bilkuran AUKEAREN 2014ko Aurrekontuaren likidazioa onartu zuela.

6.- ARRASATEKO JABETZA PUBLIKOKO LANDA BIDEEN INBENTARIOA ONARTZEA.(2015IING0017)

Udal Plenoak, aho batez, Korporazioa osatzen duten 21 zinegotzietatik bilkuran 19 daudela, **erabaki du Arrasateko Jabetza Publikoko Landa Bideen Inbentarioa onartzea eta Arrasateko Udaleko ondasunen inbentarioan sartzea.**

7.- MOCIÓN PRESENTADA POR LAS JUVENTUDES SOCIALISTAS DE ARRASATE, RELATIVA AL RECHAZO A LA REFORMA DE LA ORDENACIÓN DE LAS ENSEÑANZAS UNIVERSITARIAS (2015SMOZ0007).

El Ayuntamiento Pleno, estando presentes 19 de los 21 concejales que conforman la Corporación Municipal, con el voto a favor de los concejales del grupo municipal socialista (4 PSE-EE), y la abstención del resto de los concejales presentes (10 BILDU, 4 EAJ-PNV y 1 ARALAR) **ha acordado aprobar la moción presentada por las Juventudes Socialistas de Arrasate relativa al rechazo a la reforma de la ordenación de las enseñanzas universitarias.**

8.- MOZIOA, GIPUZKOAKO JUBILATUEN ETA PENTSIODUNEN DUINTASUNA ELKARTEAK AURKEZTUTAKOA, SENDAGAIEN BERRORDAINKETA EZABATZEA ESKATZEN DUENA (2015SMOZ0006)

Alkateak adierazi du mozioa aurkeztu duen elkarteak eskatu duela gaurkoan mozioa ez jorratzea, hurrengo baterako lagatzea, alegia. Hori ikusita, Udal Plenoak, aho batez, **erabaki du gai hau mahai gainean lagatzea.**

9.- ALKATETZAK EMANDAKO EBAZPENEN BERRI HARTZEA, PLENOAREN AZKEN BILKURATIK GAURDAINO ARTEKOAK

Udal Plenoak Alkateak emandako dekretuen berri hartu du, Plenoaren azken bilkuratik gaurko bilera honetako deialdia egin zen egunera artekoak (apirilaren 14ra arte).



Esp. kodea: 2015SAPL0004

10.- ESKARIAK ETA GALDERAK

Ez da dira izan

Arrasaten, 2015eko apirilaren 16an

IDAZKARIA

Iñigo Garitano Larrañaga